



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailak 18

Vitoria-Gasteiz, 18 de febrero de 2020

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK, BERE KONTSEILUAN, 1.300.000 EURO ONARTU DITU 2020AN GENERO-INDARKERIAREN EMAKUME BIKTIMEI LAGUNTZEKO

- **2019an, genero-indarkeriaren biktime izan ziren ia berrehun emakumek jaso zuten ordainketa bakarreko laguntza hau; 2008an baino % 1.077 gehiagok**

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabalek proposatuta, Gobernu Kontseiluak, gaur, **genero-indarkeriaren emakume biktimentzako 'Ordainketa bakarreko' dirulaguntzaren barruan** esleitutako zuzkidura onartu du. **Laguntza hori emateko 1.300.000 euro bideratuko dira.** Aurreko ekitaldiarekin alderatuz, 200.000 euro gehiago banatuko dira dirulaguntza honen bidez: % 18,18 gehiago. Partida hori agortuz gero, handitzeko aukera egongo da.

2008. urtean genero-indarkeriaren biktime izateagatik dirulaguntzak ematen hasi zirenetik, laguntza hori jaso duten emakumeen kopuru handiena 2019an eman da; guztira 194 emakumek jaso dute laguntza. 2019ko ekitaldian ere bideratu da diru gehien laguntza hori ematera, ia 1,1 milioi euro. Lurraldean arabera diru hori honela banatu zen: Araban 219.816 euro eta 37 espediente; Gipuzkoan 217.816 euro eta 39 espediente; eta Bizkaian 662.004 euro eta 118 espediente.

2008. urtean, Eusko Jaurlaritzak 145.375,30 euroko aurrekontua bideratu zuen genero-indarkeriaren emakume biktimei zuzendutako 'ordainketa bakarreko' dirulaguntzara. Laguntza hori 18 emakumek jaso zuten. 2019an aurrekontua 1.099.080 eurokoa izan da eta 194 emakumek jaso dute laguntza.

Zenbatekoari dagokionez (145.375,50 €2008an eta 1.099.080 €2019an), igoera% 756 izan da. Onuradunei dagokionez, 2008ko 18tik 2019ko 194ra, igoera% 1.077koa izan da.

2011. urtean, lehen aldiz, ehun emakume baino gehiagok jaso zuten laguntza hori. Orduz geroztik, ez gara kopuru horretatik jaitsi.

Laguntza hori genero-indarkeriaren biktime diren emakumeentzat bakarrik zuzendua dago; Lege Organikoan jasotakoaren arabera, gizon batek bere bikote den edo izan den emakumeari eragindako indarkeria bezala definitzen da. Hau da, bertan ez dira sartzen beste edozein motatako indarkeria matxistaren biktimak, hau da: generoko familia barruko indarkeria, sexu-askatasunaren aurkako indarkeria, emakume-salerosketa edo lan-ingurunean gertatutako sexu-erasoak, besteak beste.

Laguntza horren azken helburua da diru-sarrerarik ez egoteak edo diru-sarrera txikiak egoteak eragindako kaltea aldi baterako arintzea, bikotearen edo bikote ohiaren aldetik indarkeria jasaten duen emakumeari bizitzeko gutxieneko baliabideak emateko eta, era horretan, erasotzailearengandik independizatu eta beste bizitza bat hasteko aukera izateko.

Diru kopuru nahiko handia eta aldi batekoa denez, laguntza horren helburua da emakumea bera bizitzen ari den tratu txarren egoera horretatik errazago ateratzen **laguntzea**. Laguntza horri esker, ziur aski izango dituen zorrei (kasu gehienetan bere bikoteak eragindakoak) aurre egin ahal izango die, behar izanez gero etxebizitzaz aldatu ahal izango da eta abar.

Ogasun eta Ekonomia

DEKRETU-PROIEKTUA, EUSKADIKO AURREKONTU-ARAUDIAN 2020RAKO AURREIKUSITAKO ZORPETZE-ERAGIKETAK EGITEKO BAIMENA EMATEN DUENA

Gobernu Kontseiluak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2020. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legean zorpetzearen arloan ekitaldi honetarako onartutakoari eta aurreikusitakoari jarraikiz, zorpetze-eragiketak egiteko baimena eman du.

2019ko itxierako zorpetze-eragiketak eta 2020an egin beharreko amortizazioak kontuan hartuta, ekitaldi honetan formalizatu beharreko gehieneko zenbatekoa 886 milioi euro da.

Ekitaldi honetan formalizatzen den zorpetzeak 2020rako adostutako zor publikoaren helburua betetzen dela bermatu beharko du. 2019ko abenduaren 31ko zor publikoak 5,60 urteko batez besteko bizitza eta % 1,72ko batez besteko kostua du, eta BPGaren % 12,4 inguru da. Hortaz, sobera betetzen dira Estatuarekin adostutako 2018-2020ko aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak (2020rako BPGaren % 13,2tan finkatuta zeudenak).

Dekretua onartu eta argitaratu ondoren, ekitaldiko eragiketak negoziatzen eta egiten hasiko dira, eta, azken urteetan bezala, baimendutakoa baino zenbateko txikiagoa izango dutela kalkulatzen da.

2020AN KREDITU-KONTUAK FORMALIZATZEA BAIMENTZEN DUEN AKORDIO PROPOSAMENA

Gobernu Kontseiluak, aurreko urteetan bezala, kreditu-eragiketak kreditu-kontu gisa formalizatzeko baimena eman du, Euskadiko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legean aurreikusitakoa betez.

Kreditu-eragiketak urtean zehar formalizatuko dira, eta, aurreko urteetan bezala, guztira 800 milioi euroko zenbatekoa izango dute.

Ogasun eta Ekonomia

**GOBERNUAK PEDRO AZPIAZU SAILBURUA EKONOMIA ITUNAREN
BATZORDE MISTOKO PRESIDENTE, ETA JOSU ERKOREKA SAILBURUA
ETA ITZIAR AGIRRE OGASUNEO SAILBURUORDEA EIBM-KO KIDE
IZENDATU DITU**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Pedro Azpiazu Ogasun eta Ekonomiako sailburua Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoko presidente, eta Josu Erkoreka Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua eta Itziar Agirre Ogasuneko sailburuordea Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoko kide izendatzea, Batzorde Mistoaren hurrengo bilera martxoaren bigarren edo hirugarren astean egingo dela aurreikusita.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 61. artikuluan xedatutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio bertan aurreikusitako Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoko kideetako hiru izendatzea.

Empleo y Políticas Sociales

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA EN CONSEJO 1.300.000 EUROS PARA LA AYUDAR ECONÓMICAMENTE EN 2020 A LAS MUJERES VÍCTIMAS DE VIOLENCIA DE GÉNERO

- **Durante 2019, casi doscientas mujeres víctimas de violencia de género se beneficiaron de esta ayuda de pago único, un 1.077% más que en 2008**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy, a propuesta de la consejera de Empleo y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal, la dotación asignada dentro de la **ayuda económica de 'Pago único' para mujeres víctimas de violencia de género, cuyo importe económico asciende a 1.300.000 euros**. Supone un incremento de 200.000 euros en relación al ejercicio anterior: un 18,18%. Se trata de una partida ampliable que, en caso de agotarse, podrá aumentarse.

2019 ha representado el año que más mujeres víctimas de violencia de género han recibido este apoyo económico, un total de 194, desde que comenzara a concederse en el año 2008. También el ejercicio en el que más dinero se ha destinado a la misma, con casi 1,1 millón de euros. Su distribución por territorios fue la siguiente: Araba 219.816 euros, con 37 expedientes. Gipuzkoa: 217.260 euros, con 39 expedientes; y Bizkaia: 662.004 euros, con 118 expedientes.

En el año 2008, el Gobierno vasco destinó un presupuesto de 145.375,30 euros para en la Ayuda Económica de 'Pago único' para mujeres víctimas de violencia de género. Se beneficiaron de la misma 18 mujeres. En 2019, el presupuesto ha sido de 1.099.080 euros y se han beneficiado 194 víctimas.

En relación a la cuantía (de 145.375,50 € en 2008 a 1.099.080 € en 2019) el incremento es del 756 %. **En relación a las beneficiarias**, de 18 en 2008 a 194 en 2019, el incremento es del 1.077 %.

En el año 2011 se superó la barrera del centenar de mujeres que han recibido esta ayuda y, desde entonces, no se ha bajado de esta cantidad.

Esta ayuda está destinada sólo y exclusivamente a mujeres víctimas de violencia de género entendida, como marca la Ley Orgánica, como la violencia ejercida siempre por un hombre contra una mujer que es o ha sido pareja. Es decir, no entrarían las víctimas de cualquier otro tipo de violencia machista como: violencia intrafamiliar de género, violencia contra la libertad sexual, trata o acoso en el entorno laboral, entre otras.

El fin último de esta ayuda es paliar temporalmente la ausencia de ingresos o la escasez de éstos con el fin de facilitarle a la mujer que sufre violencia por parte de su pareja o expareja unos recursos mínimos de subsistencia que le

permitan independizarse de su agresor y comenzar una nueva vida independiente de él.

El objetivo de esta ayuda, al tratarse de un montante económico bastante importante y de una sola vez, es **hacer viable** que la mujer pueda salir más fácilmente de esa situación de maltrato en la que vive. Con esta ayuda podrá hacer frente a deudas que seguramente tendrá (la mayoría de las veces contraídas por su pareja), cambiarse de vivienda si es necesario, etc.

Hacienda y Economía

EL GOBIERNO AUTORIZA LA REALIZACIÓN DE OPERACIONES DE ENDEUDAMIENTO PARA 2020 PREVISTAS EN LA NORMATIVA PRESUPUESTARIA DE EUSKADI

El Consejo de Gobierno ha autorizado de conformidad con lo aprobado y previsto para este ejercicio en materia de endeudamiento por la Ley por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2020 la realización de operaciones de endeudamiento.

Considerando las operaciones de endeudamiento al cierre de 2019 y las amortizaciones a realizar durante 2020, el importe máximo a formalizar en el presente ejercicio se sitúa en 886 millones de euros

El endeudamiento que se formalice durante el presente ejercicio deberá garantizar el cumplimiento del objetivo de deuda pública acordado para 2020. La deuda pública a 31 de diciembre de 2019 tiene una vida media de 5,60 años y un coste medio de 1,72 % y supone aproximadamente el 12,4 % del PIB, cumpliendo de forma holgada los objetivos de estabilidad presupuestaria y deuda pública 2018-2020 acordados con el Estado, que estaban fijados en el 13,2 % del PIB para 2020.

Una vez aprobado y publicado el Decreto se iniciará la negociación y realización de las distintas operaciones del ejercicio, que, al igual que en los últimos años, se estima alcanzarán una cifra total inferior a la autorizada.

ACUERDO POR EL QUE SE AUTORIZA LA FORMALIZACION DE CUENTAS DE CREDITO EN 2020

El Consejo de Gobierno, al igual que en años anteriores, ha autorizado, de conformidad con lo previsto por la Ley 8/1996 , de 8 de noviembre, de Finanzas de Euskadi, la formalización de operaciones de crédito, en forma de cuentas de crédito.

Las operaciones de crédito se formalizarán a lo largo del año y, también al igual que en años anteriores, tendrán un importe total de 800 millones de euros.

Hacienda y Economía

EL GOBIERNO DESIGNA AL CONSEJERO PEDRO AZPIAZU PRESIDENTE DE LA COMISIÓN MIXTA DEL CONCIERTO ECONÓMICO Y AL CONSEJERO JOSU ERKOREKA Y A LA VICECONSEJERA DE HACIENDA, ITZIAR AGIRRE, MIEMBROS DE LA CMCE

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la designación del Consejero de Hacienda y Economía, Pedro Azpiazu, presidente de la Comisión Mixta del Concierto Económico, así como al Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, Josu Erkoreka, y a la Viceconsejera de Hacienda, Itziar Agirre, miembros de la Comisión Mixta del Concierto Económico en previsión de la próxima celebración de la reunión de la Comisión Mixta la segunda o tercera semana del próximo mes de marzo.

En virtud de lo dispuesto en el artículo 61 de la Ley 12/2002, de 23 de mayo por el que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, corresponde al Gobierno Vasco designar a tres de los miembros de la Comisión Mixta del Concierto Económico prevista en el mismo.